

## Hobiratzea

tekizunagatik, Jainkoak emaniko grazia berezi gisa eduki omen zuena.

Ik. Bekatua; Santua; Sortzez Garbia.

## Hobiratzea

Ik. Ehorzketa.

## Hodeia

Orokorki harturik, \*emankortasunaren sinbologia da hodeia, batez ere lurrera ixurten duen euriarekin batera irudikatuta doanean.

Bestalde, Jainkoaren bizilekua da hodeia; horregatik da \*teofanien elementuetako bat. Sinbologia horrekin agertzen da gehienbat Biblian: Israelgo Herria basamortuan gidatzen duen hodeizko zutabea; Jesus antzaldatzean biltzen duen hodei zuria; Jesus berpiztua zeruratzean ezkututzen duena; azken egunean "Gizonaren Semea" epaile gisa etorriko omen denean ere hodeiak izango omen ditu bere agertaldiko aulkitzat.

Leku askotan, ordea, juztulodeia adierazteko erabiltzen da bereziki hodeia, jzuturi edo ostotz, \*oinaztarri, oinaztargi eta guzti. Horrelako hodeia Euskal mitologian pertsonifikaturik agertzen da, \*jeinu edo irelu bereziren itxuran; baliabide magikoen bidez horren haserrea baretzen saiatzen zen jendea: kandela piztua jartzea, belar bedeinkatu edo ereinotz-hostoak erretzen jartzea, etxeko ataurrean haizkora ahozgora ipintzea.

Hodeitik babesteko jarri ohi zituzten etxeko atean ereinotz-adarrezko gurutzeta, kardo-lorea, etab.

Ik. Izadi-gurtza Euskal Herrian.

## Holokaustoa

Opari-mota da, opaldutako gauza erreaz edo bestela suntsitu egiten denekoa, giza-kientzat ez-baliagarri uzteraino.

Juduen \*erre-oparia zen opari-mota horretakoa.

Ik. Oparia.

## Holy communion

Ingalaterrako Elizan eukaristiaren ospakuntzari ematen dioten izena.

Ik. Aldareko sakramentua.

## Homiletika

Pastoralta-teologiaren zati bat da, \*liturgikizunetan edo bestelako \*elizkizunetan fededunei Jainkoaren hitzaren azalpena

edo prediku arrunta (\*homilia, \*sermoia) egiteko arauak eta antzea irakasten dituen.

Ik. Jainkoaren hitzaren adierazpena; Pastoralta-teologia.

## Homilia

Antzina apezpikuek beren kristauei egiten zien \*sermoia deitzen zuten horrela. Gaurko Eliza Katolikoaren hizkeran, Ebanjelioaren eta \*mezako beste irakurgaien iruzkin praktikoa eta errezari deritza horrela.

Eliz egutegiaren arabera homiliak ordenatuta dauzkan liburua homili liburua deitzen da.

Ik. Jainkoaren hitzaren adierazpena.

## Homologoeta

Ekialdeko Elizan erabiltzen den kontzeptua, jazarraldian kristau-fedea zintzoki eta finko aitortu duena, baina hala ere bizia kendu ez diotena, adierazteko. Eliza latinoan \*aitorlea izenarekin adierazten denaren antzekoa da.

## Horizontalismoa

Kristauen arteko joera adierazten du, kristautasunaren alderdi traszendental gaxiosten eta hura funtsean mundu-barruko baloreen (\*zuzentasunaren, \*maitasunaren, \*zintzotasunaren, etab.en) egikaritzera eta praktikara bihurtzen duena. Horren abiaburua zera da: giza senideen arteko harremanen bakarrrik mamitzen dela Jainkoarekiko harreman jator eta benetakoa.

Bertikalismoari edo \*izpiritualismoari kontrajartzen zaio horizontalismoa.

## Horoskopoa

Ik. Aztiapena.

## Hosanna

Jesus, garailearen itxuran, Jerusalemenera asto gainean sartu zenean herriak oihukatutako hitza, ebanjelioaren arabera. Hortik hartu du Elizak \*liturgiarako, Jainkoaren aintza eta garaipena adierazteko. Hebraieratik dator hitza, eta "bedeinkatzen zaitugu" adierazten du.

Ik. Erramu-eguna.

## Humanismoa

Jatorriz, XIV. eta XV. mendeetako burgeseriaren hezkuntzaren eta giza bizitzako idealaren teoria dela esan daiteke; beste erataria esanda, Errenazimentuak klase gida-

rietan eraturiko balore-sistema, biziera eta pentsaera oinarritzeko ideologiari eman zioten humanismoa izena.

Italiako errenazentistek sortu zuten humanismoa: kulturaren adiera aristokratikoa zuten, \*kleroak eta nobleziak zutenaren aurrez aurre; handik zabaldu zen Europan zehar.

Hiru ardatz zituen kultura-modu eta ideologia horrek:

- Antzinateko Greziako eta Erromako literatura, filosofia eta kultura paganoko ondarea iturri eta eredutzat hartzea, "bitarteko" \*eskolastika gaingiduz, eta orduko humanitas berrituz. Orduko \*mitologiaren birbalioztapena ere ekarri zuen horrek.

- Erlijiozko \*dogma eta \*arabide heretsiei buruz buru, kristautasunaren interpretazio eta biziera autonomo, liberal, funtzional eta individuala proposatzen zuen humanismoak, horrela nolabait XVI. mendeko \*Erreforma protestanteari bidea irekiz, nahiz eta beste zenbait elementurengatik erabat kontradiktorioa gertatu humanismoa Erreformarentzat.

- Izadiaren filosofia eta mundu-ikuskerazientifiko-teknikoa, munduaren erdigunetzat gizakia jartzen zuena eta helburutzat horrekiko jauntasuna lortzea.

Dena dela, humanismo errenazentista ez da erlijioaren eta bereziki kristautasunaren kontrakoa. Baina kultura eta pentsamendu berrien indarrei jarein zien, gerora Ilustrazioaren humanismo errazionalista eta \*marxismoaren humanismo ateo eta iraultzaileari lekua irekiz; horiek erlijioa baztertzera edota ukatzera iritsiko dira "humanismo jatorraren" izenean.

Errazionalismoak erabat ulertu, irentsi, gaingiditu edo baztertu (bazterreratu) aste eta nahi du erlijiozko misterioa, giza arazoimena edonolako ezagutza eta ekintzaren, erdigune, iturburu eta eragiletzat jarriz.

Marxismoak, berriz, gizon-emakumeen ahalginaren bidez, munduaren ahalbideak eta indarrak eskuratu, eraldatu eta gizakiaren zerbitzura jarri nahi ditu, horrela bestelako humanismo "praktikoa" (praxiaren bidezkoa) landuz, non gizakia bere buruaren eta munduaren sortzailea bait da nolabait, erlijiozkoak eta bestelako \*ideologiek gizon-emakumeei ezarri diezaizkieketen arrozketaz guztiak gaingiduz.

Existentialismoak ere humanismotzat hartzen du bere burua, gizakiak bere baitatik, eta kanpotiko inolako loturarik gabe, bere buruaren "burutzapena" lortu behar duelako.

Humanismoa, funtsean gizakiaren munduko erdigunea izatea adierazten duenez, ez da erlijioaren aurkakoa. Areago, erlijio gehienak humanistatzat dute beren \*irakasbidea eta ihardunbidea, gizon-emakumeak salbatzeko, askatzeko eta erabat burutzeko bideak direnez. Ik. Salbamena.

Azken aldiotako irakaspen katolikoa "humanismo osoaz" mintzatu ohi da, \*kristautasuna halakotzat hartuz. Jainkoagana sustraitik irekia den eta nolabait gizakia bere burua gaingiduzera daraman humanismoa aldarrikatzen du kristautasunak; bestalde, izadi osoaren gailurrean jartzen du gizakia, hori eskuratzeko, zaintzeko eta lantzeko Jainkoagandiko agindu eta deierarekin. \*Kreazioko humanismo hori berretsirik eta azkeneraino eramanez gertatzen da, kristau-teologiaren arabera, Jainkoaren beraren gizon egitean edo Kristoren \*gizakunde.

Hala ere, kristau-humanismoak badu zer ikusirik humanismo sekularrekin, gizakiaren interpretazioa egitean; bereziki gaur humanismo marxistarekin elkarrizketa eta "elkarrizketa" sakonak eratu behar ditu, ez bakarrik gizakiak \*mundua eraikitzeko duen deiera berresteko, eta bai humanismo indibidualista eta aristokratikoa uxatzeko, edota baldintza sozio-ekonomiko eta historikoetatik landako humanismo idealista eta abstraktutik ihes egiteko.

Ik. Idealismoa; Gizakundea; Kreazioa; Mundua; Autonomia; Euskal humanismoa.

Paulo Agirrebaltzategi

### Hurkoa

Ik. Lagun-hurkoa.

### Hustarrak

Joan Hus-en jarraitzaileak. Hus (1372-1415), Bohemiako apaiza, filosofo eta teologo irakaslea izan zen. Joan Wycliffe-ren irakatsiak bere Herrian zabaltzen saiatu zen, horrela Elizaren eraberrikuntzari eragin nahian. Konstantza-ko Kontzilioak (1414) kondenatu eta bizirik sutaratu zuen gizona.

Heroi nazional bihurtu zen Hus, eta, ondoren, mugimendu erlijiozko-nazional handia sortu zuen, gerora zenbait taldetan banatua: \*Utrakistak, \*tabortarrak, \*haurride edo senide morabiarrak, etab. Denek Hus-en jarraitzailetzat daukate beren burua.

Ik. Erreforma protestantea.

### Hutsezin(tasun)a

Sin.: Infalibilitatea; Okertezin(tasun)a

Jaingoak agerturiko egiari dagokionez,